

Elhuyar hiztegia

ZETIAZ

argazkiak: Itziar Nogeras

Elhuyar Hiztegia. Batasunaren kutxa elebidun berria. Gaztelaniaren eta euskararen artean beste edozeinek baino autopista zabalagoa ireki duena.

Azala koloretsua duena, mamiz gizena. Elhuyar Hiztegia. Jendaurrean dagoeneko aurkeztu da eta orain, irakurle, zure aurrera dakarkigu, zuk erabil, ikus, azter eta epai dezazun.

Azala koloretsua baino askoz gehiago da orri hauen bidez aurkeztu nahi dizuegun lana, *gaztelania-euskara/ /castellano-vasco Elhuyar Hiztegia*. Azalez bizia bada ere, edukiz, mamiz, zure beharrak asetzeari begira egindako lana da, lagun askoren izerdia lekuko. 13 laguneko taldeak landu baitu, orriz orri eta hitzez hitz, Elhuyar Kultur Elkartek aurkeztu berri duen hiztegia. 85.000 sarrera, 120.000 adiera, 16.000 azpisarrera, 120.000 adibide, hamaika ordutako eztabaida, ezuste bat baino gehiago... eta hutsune nabarmen bat: proiektu hutsa zenez geroztik, lanarengan eta lan-taldearengan hasiera-hasieratik fede osoa izan zuen lagunak utzitako hutsunea, Cadizeko itxaso harroak gure artetik eramandako lagunarena... “egin behar zen, Joseba... eta... egin, egin dugu!”

Elhuyar Hiztegiak biltzaile- eta zabaltzaile-lana izan du, hasiera-hasieratik, bere egitekoa. Euskal tradizioaren iturrietan edan du, antzinakoek esandakoa zuzen



I. Irazabalbeitia

“Gaurko egunak badu niretzat txanpon baten antza. Batetik, pozez eta harrotasunez gainezka nago bi urteren lanaren fruitu mardula jendaurrean aurkeztera

gozelako. Bestetik, tristeziak estutzen du nire bihotza gaur, gure artean, hiztegi honen bide-ragarritasunean hasiera-hasieratik fedea izan zuen Joseba Jaka ez dagoelako. Beraz, ekitaldi hau, hiztegia jendaurrean agertzeko izateaz gain, Josebak euskal kulturaren alde egindako lan eskerga gogoratzeko eta eskertzeko izan dadin ere nahi izango nuke (...). Juan Jose Arrieta jaunari Euskadiko Kutxak hiztegi hau gauzatzeko eman duen laguntza zinez eskertu nahi dut. Azal koloretsu horren atzean dagoen lan-taldea ere zoriondu nahi dut. Hiztegiaren mamia eta muina osatzen lan handia egin duzuela ezin uka, baina akaso, guztietan adierazgarriena eta eskergarriena, nire aburuz, beharrean ipini duzuen lan-izpiritu nekaezina izan da”.



X. Kintana

Euskal hiztegiak bere aldiak izan ditu, eta hiztegiak inguruan sentitzen zituzten hutsune, premia edo desfioei erantzun nahi izan diete.

Hori dela eta, euskal hitzen bilaketa edo zerrendaketa ordenatua, batzuetan konplexupean egin da, erdaldunei gure lexikoaren altxor aberatsa eta euskararen apartekotasun miresgarria erakusteko, horretarako maiz erabili den asmamen beroak inoiz etxeokoa ere aho zabalik utzi dituen arren. Baina euskararen erabilera normalduz eta ofizialduz joan den eran, gure hiztegiakaren premiak ere inguruko herrien pareko egin dira. (...)

Euskal hiztegiak gaurko euskaldunen egiazko premietara egokitu dira, egungo gizarteak ezagutzen, erabiltzen eta behar dituen kontzeptuak oro adierazteko. Alde horretatik, gure iragan hurbileko baserri eta arrantzaletako bizimodu tradizionala lexicoko ahantzi gabe, hiztegia, gaurko euskaldunok bezala, kaletartu egin dira. (...) Hori guztia egiten ahalegindu ginen Euskal Hiztegi Modernoa, geroago Hiztegi Bi Mila bilakatuko zena, prestatzen ihardun genuenok. (...) Harrezkero, hiztegi berezitu asko agertu dira anitz zientzian, eta testuliburu, saio eta ikerlan ederrak ere bai. Idazleek ere hiztegiakaren eskaintza ikusi ondoren, hitz batzuk onetsi eta beste batzuk arbuiautuz, horien ordez beste forma batzuk, seguraski egokiagoak bultzatzeko, eta kritikak eta hobespen horiek ezin ahantz daitezke. Hiztegiak teorikoak, hortaz, erabiltzaileen ukitze-harritik pasatu behar izan du. Hauxe da, besteak beste, oraingo hiztegi honek bete nahiko lukeen zuloa, azken urteotako aldaketan lekukotasun ugariak jaso, horiek hautatu, eguneratu eta ordenatu ondoren, era guztietako euskaldunei eskaintzeko.

gordez, betiere etorkizunerantz aurrera egiteko xedez. Elhuyar Hiztegiak halaber, bi hizkuntzen, euskararen eta gaztelaniaren arteko zubia izan nahi zuen, etorkizuneko zubia: material berriez egindako habeak dituen zubia, gaurko eta bihurtuko euskaldunok izango dituzten premiak aurreikusten ahalegindu dena. Bi hizkuntzen, bi hiztun-komunitateen arteko elkarriketa duzu irakurle, Elhuyar Hiztegia. Hiztegiari hasiera ematen dion pasar-



Miramar jauregian bildutako enburen aurrean aurkeztu zen lehen aldiz Elhuyar hiztegia. Ezkerretik hasita, A. Gurrutxaga, X. Mendiguren, X. Kintana, M. Azkarate, J.J. Arrieta eta I. Irazabalbeitiak osatu zuten mahai-burua.



Hiztegia eskuratzeko irrika begi-bistakoa da. Aurkezpena hasi aurretik ere hizpide bakarraz zebilen denen ahotan. Ikusi besterik ez duzu, irakurle.

Xabier Mendigurenek bereziki eskertu zuen erredakzio-taldeak egindako lana, inurri-lana bere hitzetan.



Jauregiko areto nagusira hurbildu zirenen artean, aurpegi ezagun asko ageri zen. Bereziki eskertzekoa da, komunikabideetako lankideek emaniko erantzuna.



Aitortu behar dizuet benetan aberasgarri gertatu zaidala hiztegiaren ibilbidea egitea. Izan ere, horrelako hiztegi baten zuzendari-lana egin ahal izateko, aurrean dituzun sarrerei erantzuna eman behar diezu. Ezin duzu esan hitz honek arazoak ditu eta hobe dugu hurrengorako uztea. Onargari den ordaina eman behar duzu; edo bestela, oraindik ere nolako arazoak ditugun onartu eta aurrera egin. Beste modu batean esanda, lexikoaren estandarizazioarako ditugun irizpide teorikoekin errementariak sutegian zer egin dezakeen ikusteko parada ezin hobea ematen dute honelako lanek. (...)



M. Azkarate

Terminologia auzietan sudurra sartzeko aukera ere eman dit lan honek. (...) Estandarizazioaren haria eskuartetik utzi gabe, euskararentzat *karniboro* ala *haragi-jale*-ren bidea hautatu behar dugun eztabaidatzeko eta aukerak egiteko egokia izaten dira hiztegi eta entziklopediak. Erabakia bi formak sartzeko ere izan daiteke, jakina. Eskuartearen dugun hiztegia batasunaren kutxa elebidun berria da, euskalkietako lexiko-ondarea eskuzabal jasotzen duena. Eta, batez ere, erdal sarreren ordainetan, eta maila berean, euskalki desberdinetako ordainak eman dituen. Eta honek, nik uste, mesede baino ezin dio egin batasunari, gaurko euskara estandarrek euskalki bateko eta besteko hitzentzat lekua izateaz gain, behin baino gehiagotan hitz desberdin horien beharra ere baduela erakusten duelako. (...) Badakit hiztegi honetan ageri diren formatik batek edo bestek aldatetak izango dituela hurrengo hilabete eta urteetan. Ez da ez harritzeko eta ez kezkatzeko. Hiztegi guztientzat, ez honentzat bakarrik, kaleratzen diren egunetik beretik hasten da zuzentze- eta osatze-lana. Baina etorkizuna etorkizun, pozik hartzekoa da, ezbairik gabe, eskuartearen dugun lan mardula.

tea duzu ondokoa, egin nahi izan denaren erakusgarri.

Hiztegi elebiduna bi hizkuntzak elkarri hitzordua galdu eta, aspaldiko adiskideak kontu zaharrak kontari eta 'oraingoan zer berri?' hasten diren moduan, elkarri berbak 'kontatzen' hasten diren elkarretaratzea genuke. Bakoitzak bere barrena hustu eta besteari bere hitzak, esaerak, gramatika-kontuak, baita adibideak ere, azaltzen dizkio, hark ulertzeko modurik egokienean, haren hizkuntzan alegia.

Arestian esan bezala, jendaurrean jadanik egin du bere agerpena Elhuyar Hiztegiak. Donostiako Miramar Jauregiko Areto Nagusian, hain justu. Azken orduko urduritasunak baretzerako, jendez bete-beterik zegoen aretoa eta horien guztien aurrean biluzi zen azken urteotako lana.

Ekitaldiaren hasiera Elhuyarreko informatika-taldeak berariaz egindako ikus-entzunezko muntaiak abiarazi zuen. Bertan euskal

tradizioaren garrantziaz eta Elhuyar Hiztegiak bete nahi lukeen lekuaz ihardun zuten. Han entzun eta ikusitakoa hitz gutxitan laburbiltzekotan, garai bakoitzak bere hiztegia izan duela eta, Elhuyar Hiztegiak mende berriko hiztegia izatea duela helburu esan genezake. M. Larramendi, R.M. Azkue, P. Lhande, P. Mujika, eta Hiztegia 2000 hiztegien atzera begirako ikuspegia eskaini zuen muntaiak, urte horietan guztietan egindako lanaren erakusgarri, hiztegiek eta oro har hiztegin-tzak izan duen bilakaera azaldu nahian. Hitzak, musika eta irudiak nahasturik, orain arte egindakolari omenaldi txiki eta xumea eskaini nahi izan zitzaion.

Elhuyar Hiztegia izan ere, euskal tradizioarekiko zorretan jaio da; euskal tradizioaren itzalean hazi eta gorpuztu baita lana eta aldi berean, etorkizuneko premia berriak, gutariko guztioi egunetik egunera sortzen zaizkigunak,

ikusmiran izan ditu une oro. Azken urteotan euskara batu eta estandarra finkatzeko, gure tradizioa hobeto ulertzeko, kultur hizkuntza moderno eta aberatsa prestatzeko, komunikabideetan, itzulpengintzan eta euskarazko produktu eta material berriak sortzen, horretan guztietan berebiziko ahalegina egin denik ezin daiteke uka. Esperientzia horien emaitzak lan bakar batean biltzeko ez al du merezi? Hala iruditu zitzaigun guri eta ahalegin horretan, zure aurrean ere aurkeztu nahi izan dugun hiztegia sortu zen.



"Itzultzaileak hiztegien bezero hoberenetakoak betidanik izan badira ere, agian ia ez dira inoiz oso kotuan hartu hiztegi horiek apailatzerakoan. Eta itzultzaileak esatean ez naiz ari ofizio-koez bakarrik, alde edo moldez zerbait euskaratu edo erdaratu beharrean izaten diren guztiez baizik, gutariko gehienoz baizik.

Horregatik, hiztegi honetan esku hartzeko gomita luzatu eta itzulpenaren mundua oso kontuan hartu nahi zela adierazi zidatenean, bi aldiz pentsatu gabe eman nuen baietza. (...) Behingoz, edukiz eta tamainaz, gaur eguneko itzultzaile eta irakasle gehienoi ase-betean erantzungo digun



X. Mendiguren

hiztegi baten aurrean gaudela uste dut. (...) Zergatik erantzuten dion itzultzaile askoren premiari galdeztzen badidazue, lehenik esan behar dut, hiztegi batek inoiz ez diola erabat erantzuten itzultzaile baten lanari, baina hizkuntza abstraktuaren artetik testuetako hizketa errepikaezinerara zubia ezartzea egingarria den heinean, hiztegi honek neurri handian lortzen du bi hizkuntza eta kulturaren hurbiltze hori. (...) Beraz, 85.000 sarrera eta 120.000 adierarekin, hiztegi bakarra da edukia zenbatezko eta nolako, gaztelaniaren eta euskararen artean beste edozeinek baino autopista zabalago ireki duen hau. (...) Zuei eta niri, eguneroko lanean erabiliko dugunoi dagokigu orain epaitu eta gero eta doia izan dadin hobekuntzak proposatzea, guztiok amankomunean dugun euskaren apustu hori irabazteko.

Hiztegiaren edukiak

- ✓ lexiko arrunt edo orokorra
- ✓ lexiko tekniko edo berezitua; hirurogeita zazpi jakintza-alor bereizi dira
- ✓ onomastika: Euskal Herriko eta munduko leku-izenak, ponte-izenak, pertsona historikoen izenak, izen mitologikoak, erakunde-izenak, siglak eta beste; jentilizioak
- ✓ lexia konplexuak (terminologiaren alorreko hitz-elkarteak, izen + adjektibo erakoak, etab.)
- ✓ esapide, lokuzio eta gramatika-egiturak
- ✓ informazio osagarria: kategoria, erabileramarkak, hizkuntza-erregistroa, jakintza alorra
- ✓ sarrerari edo ordainari buruzko informazioa duten oharra (erabilerari buruzkoak eta semantikoak)
- ✓ adibideak: literaturatik hartuak eta berariaz sortuak
- ✓ eranskinak: euskararen eta gaztelaniaren ortografia eta morfologia buruzko informazioa

Elhuyar hiztegia zertan den

Antton Gurrutxaga*

Elhuyarren euskara-gaztelania/gaztelania-euskara hiztegi baten premiaz aspaldi ohartuak ginen. Euskara batuaren sorreraz gero sorturiko hiztegien artean Hiztegia 2000 izan da, dudarik gabe, erabili eta ezagunena.

Haren egitura eta edukiak ordea, 1981az geroztik ez dira aldatu. Ondotxo dakigu harrezkero zenbat lan egin den euskararen tradizioa hobeto eza-gutzeko eta hizkuntza moderno eta ahalsua bihurtzeko. Ikerketa eta aurrerapauso horien emaitza nagusi eta garrantzitsuenak liburu batean biltzea merezi zuela ukazina zen.

Horiek horrela, lanari ekin genionean biltzaile izan behar genuela esan genion geure buruari, asmatutakoa asmatzen ihardun barik, euskalgintzak eman dituen fruituen berri jakin eta modu erabilgarri eta ulergarri hiztegi batean egoki antolatu. Horixe izan da, bada, gure abiapuntuko jarrera. Hiztegiaren aurkituko duzun informazioa euskara eta gaztelaniaren arteko zubi eraiki berria da, baina berori egiteko erabili ditugun adreilu, altzairuzko habe, hormigoizko zutabe eta estaldura-material gehien-gehienak ez dira guk asmatuak, hainbat erakunde, talde eta euskaltzalek landutakoak baizik. Haien proposatu eta zabalduak jaso eta bateratu besterik ez dugu egin. Horrexegatik uste dugu lan hau gaur egungo euskararen argazki ongi fokatua dela.

Nolanahi ere, lehen 'gehien-gehienak' esan dugu, eta ez 'den-denak', zeren ezinbestean proposatzaile bihurtu behar izan baitugu batzuetan, gaztelaniazko zenbait hitzen ordainak ematera koan, euskarak tradizioz izan ez duelako edota inork proposamen berri edo arrakastatsurik egin ez duelako, dagoen hutsunea betetzen saiatuko baginen. Horrexegatik uste dugu hiztegia gaur egungo euskararen tresnak zorrozteko eta etorkizunari begira areago prestatzeko benazko ahalegina dela.

Hiztegiak 85.000 sarrera inguru ditu bi atalen artean eta 120.000 adiera. Kopuru horiek bere adierazten digute hiztegiaren

Artikuluaren egitura

bien. s.m. 1. On, ongi; onura, probetxu. *Sabe distinguir el bien y el mal:* ongia eta gaizkia bereizten badaki. *Se esfuerza en hacer el bien:* on egiten saiatzen da. *Trabaja por el bien de la familia:* familiaren probetxurako lan egiten du. 2. (pl.) Ondasun, ondare. *Ha gastado todo y se ha quedado sin bienes:* dena gastatu eta ondasunik gabe geratu da. 3. (Enseñ.) Ongi (kalifikazioa). ♦ adv. 4. Ondo, ongi, ontsa; ederki, behar bezala, zuzen. *La máquina funciona bien:* makinak ongi funtzionatzen du. 5. Oso, biziki; asko (adjektibo edo adberbio baten aurretik). *Me gusta el caldo bien caliente:* salda oso beroa gustatzen zait. *Bien pronto llegó a casa:* laster asko heldu zen etxera. □ **bien común.** Guztien on, guztien ongi. || **bienes (de) propios.** (Der.) Udallerriaren ondasunak. || **bienes complementarios.** (Econ.) Ondasun osagarriak. || **bienes comunales.** (Der.) Herri-ondasunak. || **bienes de consumo.** (Econ.) Kontsumo-ondasunak. || **bienes de dominio público.** (Der.) Jabari publikoko ondasunak, herri-jabari-ondasunak. || **bienes de equipo.** (Econ.) Ekipo-ondasunak, ekipamendu-ondasunak. || **bienes de producción.** (Econ.) Produkzio-ondasunak. || **bienes de uso público.** (Der.) Herritarren erabilerako ondasunak. || **bienes gananciales.** (Der.) Irabazpidezko ondasunak. || **bienes inmuebles.** (Der.) Ondasun higiezinak. || **bienes mostrencos.** (Der.) Jabegabeko ondasunak. || **bienes muebles.** (Der.) Ondasun higigarriak. || **bienes raíces.** (Der.) Onibarrak, funts-ondasunak. || **bienes sustitutos.** (Econ.) Ondasun ordezkagarriak, ordezeko ondasunak. □ (*persona, gente...*) **de bien.** Zintzo, zuzen. *En esta casa vive gente de bien:* etxe honetan jende zintzoa bizi da. || **bien de + s.** Asko, ugari, franko, makina bat... *Bien de veces se lo he recordado:* makina bat aldiz gogorazi diot hori. || **bien... bien...** Edo, nahiz, zein. *Lo puedes hacer bien en casa bien en el trabajo:* etxean zein lantokian egin dezakezu. ||...

Adierak zenbakituta (adierak zenbakituta)

erabilera-marka (erabilera-marka)

adibidea (adibidea)

jakintza-alorra (jakintza-alorra)

azpisarrera lexikala (azpisarrera lexikala)

azpisarreraren bereizgarria (azpisarreraren bereizgarria)

lokuzioa (lokuzioa)

kategoria gramatikala (kategoria gramatikala)

kategoria-aldaketaren ezaugarria (kategoria-aldaketaren ezaugarria)

norainokoa. Izan ere, sarrera-kopuruari begira, bistan da ez garela oinarritzko lan batez ari, premia behinenak soilik asetzeko asmoz taxutua; hori gabe, bi hizkuntzen masa lexikoa esanguratsua bildu da, askotariko beharrrak, eta ez bakarrik erabiltzaile estandarrenak soilik, kontutan hartzearen. Hartara, lexiko arrunta eta orokorra landu da, historikoa zein gaur egungo lexiko 'hiritartua'; horrekin batera terminologia teknikoak ere badu lan honetan bere tokia, guztira hirurogeita zazpi jakintza-alorretako hitzak bildu direlarik. Jakin-

tza-alorraren marka duten adierak 18.000 inguru dira atal bakoitzean. Bestalde, adiera-kopuru osoari erreparatuz gero, hitzen adierak bereizteko eta horren arabera dagozkion ordainak zehatz agertzeko ahalegina egin dela argi dago. Lexikoaz landa, hiztegiak onomastikaz ere informatuko zaitu. Atal bakoitzean 2.800 bat sarrera daude Euskal Herrikoen eta munduko leku-izenek, bataio- edo ponte-izenek, etab.ez osatuak. Sarrera baten artikuluaren barruan 'azpisarrera' izenekoak aurki-

tuko dituzu. Bi motatakoak izan daitezke: batetik, terminologiaren alorreko hitz-elkarte, izen + adjektibo egiturak, etab., bestela esanda, 'lexia konplexuak'; bestetik, esapide, lokuzio, gramatika-egitura, etab. Bi mota hauek atal bereizietan antolatuz daude artikuluetan.

Azkenik, artikuluak hitzaren kategoria (edo kategoriak) beti zehazten ditu, eta, dagokionean, erabilera-marka, hizkuntza-erregistroa, jakintza-alorraren marka, etab. Euskara-gaztelania atalean euskalkiaren edo eremu geografikoaren (Ipar. edo Heg.) berri ere ematen da. Beharrezko iritzi diogunean, parentesi arteko oharrak erantsi ditugu, eta hitzaren erabilera argitzen duten adibide ugariak ere bai.


Ordainak ematerakoan, atal batean zein bestean ahalbait sinonimo gehien eskaintzen saiatu gara, liburuaren muga fisikoak gorabehera. Hau zuzenean dago lotuta euskalkien tratamenduekin. Euskalkiek euskara estandarrean tokia behar dutela aspaldi da euskaltzaleen artean onartua. Horrenbestez, gaztelaniazko

bihotz. iz. 1. Corazón (órgano). *Bihotz-taupadak:* latidos del corazón. 2. (hed.) Corazón, alma (centro de los sentimientos, del amor...). 3. (hed.) Corazón, parte central, parte principal, medio. *Hiriaren bihotzean:* en el centro de la ciudad. *Neguaeren bihotzean:* en medio del invierno. 4. (hed.) Corazón de la fruta; médula de las plantas. *Egurraren bihotza:* el corazón del leño. *Haltzak ez du bihotzik:* el aliso no tiene médula. *Sagarraren bihotza:* el corazón de la manzana. 5. (hed.) Valor, audacia. *Ez zuen etsaiari aurre egiteko bihotzik izan:* no tuvo valor para hacer frente al enemigo. *Bihotza har ezazu, ez dezazula gal esperantzaz:* ten valor, no pierdas la esperanza. 6. Corazón, amor (apelativo cariñoso; sólo o precedido de *ene* o *nire*). *Ene bihotza! Barretxo bat egik!;* ¡corazón, sonríe un poquito! 7. Corazón (carta y palo de la baraja francesa). □ **bihotz hil.** 1. Corazón triste, apesadumbrado. *Zer duzu hain bihotz hila egoteko?:* ¿qué te ocurre para que estés tan apesadumbrado? 2. Tristeza, congoja. *Ezin genuen piztu haren bihotz hila:* no podíamos quitarle la congoja. || **bihotz-altxagarri...**

2 saber. *v.tr.* 1. Jakin; (inbertsonaletan) jakina izan, (ezezkoetan soilik) inork ez jakin. *No sé dónde vive:* ez dakit non bizi den. *¿Sabes que Irene se ha casado?:* badakizu Irene ezkondu egin dela? *Para ese trabajo es necesario saber francés:* lan horretarako frantsesez jakin behar da. *De eso yo no sé nada:* ez dakit ezer horretaz. *Hace tiempo que se sabe que el Universo se expande:* aspalditik jakina da Unibertsoa hedatzen ari dela. *No se sabe dónde vive:* inork ez daki non bizi den. ♦ *v.intr./v.tr.* 2. -en berri jakin, -en berri izan...

hitzen ordain zerrendan euskalki-hitzak ere sartu ditugu, euskalki-markarik gabe sartu ere. Euskara-atalean berriz, direlako hitz horiek zein euskalkitakoak diren adierazita dago, dagokion markaren bidez. Hiztegi elebidunaren zeregin behinentakoa irakurleak bi hizkuntzen elementuen arteko lotura zuzenak eraikitzea da; hau da (hitz batek eta ordain batek esanahi bat baino gehiago izan dezaketela kontutan hartuta), hitz bati halako ordaina egokitzen diogunean irakurleak delako ordain horren zein adiera edo esanahiarekin lotzen ari garen zehatz jakitea. Hori egin ezean, irakurleak erlazio okerrak osa

Antton Gurrutxaga, zuzendari teknikoetako bat, hiztegiaren aurkezpena egiten.



ditzake. Lan honetan gure kezka handienetakoa izan da hori ez gertatzeko neurriak hartzea. Horretarako baliabide garrantzitsua hitzaren artikuluan adierak ongi eta argi bereiztea da, oharrez edota adibidez hornituz, *bihotz*-en artikuluan ageri den moduan. Ordainetan ahalbait informazio zehatzena ematen saiatu gara. Adibidez, *saber* = *jakin* berdintza ontzat eman liteke oro har, baina egia da esaldia inbertsonala denean (se *sabe*...) euskaraz *jakina da* eta gainera ezezkoa bada *inork ez daki* ere erabiltzen direla. Horren berri jakingo du gure irakurleak, *saber*-en artikulua horren arabera antolatu baitugu. Beste batzuetan, ezinezkoa da ordain zehatza ematea, testuinguru jakinetan era desberdinez itzuliko litzatekeenez, halako formulazio orokorra egin behar delarik. Horrelakoetan, adibideen itzulpenean ageri diren formak ez dira ordain-zerrendan jarri ditugunen berdin-berdinak. *Abusar*, *zer* eta *situación* ditugu horren adibide argiak. Hortaz adibideen itzulpenean askatasunez jokatu nahi izan dugu, ordain-zerrenda hutsak nahi bezain argi ezin bidera ditzakeen eta jator eta naturalago diren itzulpenak eskainiz. Honen helburua, betiere, irakurleari informazioa era baliagarrienean ematu

abusar. *v.intr.* 1. Gehiegi egin (dagokion ekin-tza); (gehiegi) erabili, -z (gehiegi / neurri gabe / neurritz kanpo) baliatu; abusatu. *No abuses de la bebida:* ez ezazu gehiegi edan. *La Real Academia Española recomienda no abusar de los anglicismos:* Real Academia Española erakundeak anglizismoak gehiegi ez erabiltzea gomendatzen du...

zer. *gald. (det./izord.)* 1. Qué. *Etxean zer lan egiten duzu?:* ¿qué trabajo haces en tu casa?..... ♦ *memp.* 3. El/la... que (en oraciones de relativo; le acompaña un demostrativo del tipo *hura* al comienzo de la oración principal). *Zer behar duzun, huraxe emango zaizu:* se te dará lo que necesites. *Zer ikusi, hura ikasi:* lo que se ve se aprende. *Zer erakutsi, hura eskatu:* pide lo que le enseñes. ♦ *iz.* 4. **Ser, ente;** objeto, cosa; cosa indeterminada. *Mundu honetako zer guztiak:* todas las cosas y seres de este mundo. *Atzerritik etorritako zer berri horiek izugarri gustuko ditu:* le encantan todas esas novedades procedentes del extranjero. *Gure zeretan ez duzu ikustekorik:* no tienes nada que ver en nuestros asuntos. *Benetako artista izateko behar den zera falta zaio:* le falta eso que le hace a uno ser un verdadero artista. *Flamenkoaren zer berezi hori:* ese algo especial que tiene el flamenco. 5. (herr.) **Voz de significación indeterminada** que se usa como anafórico, a modo de pausa antes de decir algo, o bien en lugar de otra palabra que no se recuerda o que no se quiere utilizar (se emplea siempre en singular). *Zerak harritu ninduen...:* lo que me extrañó fue que... *Hark zera esan zuen, horrelako asmo bat gauzatu ahal izateko jende askoren partaide-tza nahitaezkoa zela:* lo que dijo fue que para poder llevar a cabo un proyecto de ese estilo era imprescindible la participación de muchas personas. *Hi, zera, etor hadi agudo!:* ¡tú, fulano, ven en seguida! *Zerarekin ezkondu omen da...:* dicen que se ha casado con... *Zerak esan zidan... Alberto:* me lo dijo... *Alberto. Jatetxe hori zerean dago... e... Mujika kalean:* ese restaurante está en... en la calle Mujika. *Ba begira, zera... nik... e...:* egia esanda ez dakit zer esan: pues mira yo... esto..., lo cierto es que no sé que decir. □ *bai zera.* Ik. *bai.* || *ez zera.* Ik. *ez...*

situación. *s.f.* 1. (Norbait / zerbait dagoen) toki / leku; posizio. *Si me dices tu situación, iré a buscarte:* non zauden esaten badidazu, bila joango natzaizu. *La situación del barco no es conocida:* untzia non dagoen inork ez daki...

tea da, hiztegi elebidunari gorago egokitu diogun funtzioa eraz bete ahal izan dezan. Finean, horixe baita, eta ez besterik lan honen guztiaren helburu nagusia: arestian aipaturiko komunikazio-autopista guztiontza erabilgarri eta eroso izatea. 📌



Miren Azkarate eta Mariaje Barandiaran



Hiztegiko lan-taldea



**J.M. Txurruka, M. Etxaide, M. Martinez,
K. Nuñez eta Libe, azken bien haurra.**



Mikel Aizpuru



Mikel Morris eta Xabier Kintana



Ramon Labaien eta Juan Mari Irigoien



Iñigo Elozegi, Pili Kaltzada eta Virginia Larrarte



A. Elozegi



X. Mendiguren Elizalde, J. Fernandez
eta G. Ubeda



A. Kanpos, P. Muñoz, J.R. Aizpurua eta
I. Irazabalbeitia



Rafa Enparantza eta Andoni Sarriegi



Aitor Basurto eta Miren Merino



Kepa Altonaga



Maixux Rekalde eta Juan Jose
Arrieta



K.Uranga, X.
Arregi, P.
Angulo, X. Artola



E. Asumendi, E. Etxeberria eta S.
Barandiaran